



2015  
9. EDIZIOA  
9ª EDICIÓN



## DANTZAN BILAKA

PROCESOS DE CREACIÓN COREOGRÁFICA  
SORKUNTZA KOREOGRAFIKOAREN PROZESUAK

### **"GAG"**

Luciana Chierigati

### **"Buh!"**

Isaak Erdoiza

### **"PUNTO DE FUGA"**

David Guerra

### **"ANOTACIONES SOBRE EL MIEDO"**

Eva Guerrero

### **"BESTEOK"**

Garazi Lopez de Armentia

### **"1 CUERPO/8 DÍAS/8 HORAS"**

Sara Paniagua

### **"ELKARRIZKETA"**

Nuria Pérez

### **"ENCUENTROS"**

Denis Santacana



## ÍNDICE AURKIBIDEA

PRESENTACIÓN / AURKEZPENA .....	4
SIETE CONSEJOS BÁSICOS PARA DISFRUTAR DE LO QUE ESTÁ PASANDO Jaime Conde-Salazar .....	6
"GAG" Luciana Chieregati .....	10
"Buh!" Isaak Erdoiza .....	12
"PUNTO DE FUGA" David Guerra .....	14
"ANOTACIONES SOBRE EL MIEDO" Eva Guerrero .....	16
"BESTEOK" Garazi Lopez de Armentia .....	18
"ENCUENTROS" Denis Santacana .....	20
"1 CUERPO, 8 DÍAS, 8 HORAS" Sara Paniagua .....	22
"ELKARRIZKETA" Nuria Pérez .....	24
CALENDARIO / EGUTEGIA .....	26

# DANTZAN BILAKA

2015

9. EDIZIOA  
9ª EDICIÓN

## DANTZAN BILAKA

PROCESOS DE CREACIÓN COREOGRÁFICA  
SORKUNTZA KOREOGRAFIKOAREN PROZESUAK

El Departamento de Cultura del Gobierno Vasco viene impulsando desde hace nueve años un programa de apoyo a la danza dentro de la ayuda a la Creación Coreográfica. Este programa, conocido como Dantzan Bilaka, está dirigido a los/as coreógrafos/as emergentes que reciben la ayuda a la creación coreográfica.

Paralelamente a la ayuda económica, el programa Dantzan Bilaka les apoya con un seguimiento, tanto artístico como técnico, de sus respectivos procesos creativos. Este año los coordinadores artístico y técnico son, respectivamente, Igor de Quadra y Javier Andracka.

El programa Dantzan Bilaka ofrece un pequeño espacio que favorezca el diálogo y la reflexión compartida acerca de los procesos artísticos de sus propuestas coreográficas.

A lo largo de ocho meses se realizan dos encuentros de trabajo grupales entre los coreógrafos/as participantes, que pretende generar un espacio de reflexión colectivo, donde cuestionar las herramientas del proceso creativo para que abone el desarrollo del proyecto de cada participante, fortaleciendo sus propias decisiones en su condición de autores/as y creadores/as.

Tras un primer encuentro de presentación de todos los participantes, en un segundo encuentro se exponen los trabajos alrededor de una mesa y se dialoga sobre ellos. Cada uno explica, desde su momento procesual, su proyecto: de dónde ha surgido la idea, cómo la quiere trabajar, en qué fases del proceso se divide el

trabajo, qué herramientas utiliza, que metodologías maneja cada uno y cómo las quiere presentar.

Durante el mes de septiembre se ofrece a los/as creadores/as una residencia técnica dirigida al estudio de las necesidades técnicas de cada proyecto. Los/as coreógrafos/as tienen la posibilidad de poner en práctica las ideas para los respectivos diseños de iluminación, diseños sonoros y de puesta en escena en una sala equipada técnicamente.

En un tercer encuentro y respetando la fase en la que cada uno se encuentre, se presenta un fragmento de los trabajos frente a un público invitado. Este momento público es siempre un momento esperado y al mismo tiempo frágil ya que muchos trabajos se encuentran todavía inmersos en un proceso de interrogación y prueba-error experimental. Son, la mayoría, fragmentos de un proceso búsqueda.

Por ello, la muestra pública de Dantzan Bilaka es, sobre todo para el espectador que se acerca una oportunidad para descubrir procesos singulares y reflexionar sobre las múltiples maneras de entender y abordar la creación coreográfica actual en Euskadi.

Trás la muestra pública, contamos en el programa con una Jornada de Reflexión como marco de análisis propicio en el que los participantes de Dantzan Bilaka tengan la oportunidad de articular un discurso en torno a sus propuestas y los contextos de la práctica artística. En esta edición invitamos a Peio Aguirre (crítico y teórico de arte).

Los trabajos de los/as coreógrafos/as participantes en esta novena edición de Dantzan Bilaka, se podrán disfrutar en tres espacios de diferente formato en las tres capitales vascas: Azkuna Zentroa (AlhóndigaBilbao), Baratz Aretoa (Gasteiz) y Gazteszena (Donostia).

Os invitamos a esta novena edición del programa Dantzan Bilaka. Ongi etorri!

Equipo coordinador de Dantzan Bilaka 2015

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak bederatzi urte daramatza koreografía-sorkuntzari zuzendutako laguntzaren barruan dantza sustatzeko programa bat bideratzen. Datzan Bilaka du izena, koreografo hasiberriei zuzenduta dago eta koreografía-sorkuntzarako diru-laguntzak ematea du xede.

Diru-laguntzak emateaz gain, sorkuntza-prozesuei jarraipen artistikoa eta tekniko ere egiten die programak. Aurten, Igor de Quadra eta Javier Andracka izango dira, hurrenez hurren, koordinatzaile artistikoa eta tekniko.

Dantzan Bilaka programak elkarrizketarako eta gogoetarako topaleku txiki bat eskaintzen die sortzaileei, koreografía-proposameneren prozesu artistikoen inguruan taldean jarduteko.

Zortzi hilabete zehar, koreografo partaideek bi lan-topaketa egiten dituzte. Talde-gogoetarako espazio bat sortu nahi izaten da horrela, sormen-prozesuetako tresnez eztabaidatzeko, partaide bakoitzaren proiektua garatzen laguntzeko eta partaideak egile eta sortzaile burujabe bihurtzeko.

Hala, partaide guztiak aurkezteko topaketa bat egiten da aurrena, eta lanak mahai-gaineratzeko eta haien inguruan hitz egiteko beste bat, gero. Nork bere proiektua azaltzen du: zer fasetan dagoen, ideia nondik datorren, nola landu nahi duen, lanak zer fase dituen, zer tresna erabiliko dituen, zer metodologia darabilen eta nola landu nahi dituen.

Irailean zehar, egoitza tekniko bat eskaintzen zaie sortzaileei, proiektuaren beharrian teknikoak azter ditzaten. Koreografoek teknikoki hornitutako areto bat izaten dute, beren proiekturako argiztapena, soinua eta eszenaratzea lantzeko.

Hirugarren topaketan, gonbidatutako ikusle talde baten aurrean lanaren zati bat erakusteko

aukera izaten da, sortzailea prozesuaren edozein fasetan dagoela ere. Une publiko hori heltzeko irrikatan egoten dira beti artistak, baina kritikoa ere izaten da, lan ugari zalantza beteta egoten direlako oraindik eta proba-errakuntza esperimenterik izaten delako. Gehienak bilaketa-prozesu baten zatiak izan ohi dira.

Hori dela eta, Dantzan Bilakaren erakustaldi publikoa aukera paregabea da, bertaratzen den ikuslearentzat batez ere, prozesu bereziak aurkitzeko eta Euskadin gaur egun koreografía-sorkuntza ulertzeko eta lantzeko dauden modu ugari buruz hausnartzeko.

Erakustaldi publikoaren ostean, Hausnarketa Jardunaldia egin ohi da programan; bertan, beren proposameneren eta jardueren artistikoen agertokiaren inguruan hitz egiteko aukera ematen zaie Dantzan Bilakako partaideei. Aurtengoan, Peio Aguirre arte-kritikari eta -teorikoa gonbidatu dugu.

Dantzan Bilakako bederatzigarren emanaldi honetan parte hartuko duten koreografoen lanak EAEko hiru hiriburuetan ikusi ahal izango dira, formatu ezberdineko hiru gunetan: Azkuna Zentroa, AlhóndigaBilbao (Bilbon), Baratz Aretoa (Gasteiz) eta Gazteszena (Donostia).

Gonbidatuta zaudete Dantzan Bilaka programaren bederatzigarren emanaldira. Ongi etorri!

Dantzan Bilaka 2015en talde koordinatzailea

# GINARRIZKO ZAZPI AHOLKU GERTATZEN ARI DENAZ GOZATZEKO



Normalean, dantzaren inguruko testu orokorrek betetzen dute toki hau, eta Dantzan Bilakaren edizio bakoitzari buruzkoak izaten dira. Baina oraingoan testu hau zuretzat idatzita dago bereziki. Une honetantxe lerrook irakurtzen ari zara: horrek esan nahi du Dantzan Bilaka ekimenak zure interesa pizten duela, nolabait. Agian zure maitale maiteenak lan bat aurkeztuko du eta ez duzu hori galdu nahi; litekeena da zu administrazioaren bateko kultura-teknikari izatea eta zure egitekoen barruan egotea; apika zure alabak dantza egingo du; beharbada dantza ez zaizu interesatzen... baina nola ez dakizula, orri hau zure eskuetara iritsi da eta irakurtzen ari zara; akaso gorabidean den arte-komisarioa zara, eta badakizu, gaur egun, arte bisualak dauden moduan egonik, dantzan gauza askoz interesgarriagoak aurki daitezkeela; onenean zaletu sutsu eta leiala zara eta ez duzu Dantzan Bilaka inolaz ere galdu nahi... Aukerak infinituak dira, gauza da orain hemen zaudela, testu hau irakurtzen, bitxia bada ere, zuretzat idatzita dagoena. Jakin badakigu une honetan zure begiak lerro hauek zeharkatzen ari direla, eta zure gorputzaren eta idatzitako testuaren artean sortutako harreman bitxi horri esker, informazio-jarioa ahalbideratuko duen egoera aipatzen zaudela. Beraz, Dantzan Bilakaren inguruan duzun interesa aprobetxatuz eta nolabaiteko gozamen eskaini nahi dizugunez, zazpi aholku emango dizkizugu programan bildutakoaz goza dezazun. Inork eskatu gabe aholkuak ematea gauza zatarra da, ez baldin bada "lagunaren aholkua" esaten zaiona, agian unerik onenean iritsi ez arren beti egokia den horietako bat.

## 1- Gero, zoaz landa-eremura.

Dantza, gainontzeko arteak bezala, mundutarra da. Museoetan eta antzokietan isolatuta eta babestuta azaldu arren, kanpokoarekiko harremanak ematen dio zentzia. Horregatik, garrantzitsua da kanpokoarekiko arreta ez galtzea. Har itzazu kontuan Ernst Jünger jakitsuaren hitzak: dantza ikustera zoazen bakoitzean, joan zaitez beste ehun aldiz landa-eremura, kalera edo hondartzara. Horrela, jaso duzun esperientziaren zati bat munduari itzuli ahal izango diozu, modu errazean, eta bide batez, airea hartuta zure gorputza prestatuko duzu berriro ere antzoki batera sartzea erabakitzen duzunerako.

## 2- Ez zaitez beldurtu dantza itxurarik ez badu.

Dantzak aspaldi ekin zion itzulerarik gabeko bideari, diziplinaren mugetatik askatuta. Ondorioz, gaur egun dantzak askotariko formak ditu: bideoa izan daiteke, zuzeneko ikuskizuna, bazkari bat, liburu bat, hitzaldi bat, arratsalde bat hondartzan... Emaiozu baimena zeure buruari gauzak gertatzen diren moduan onartzeko, zure aurreikuspenetatik haratago, ezaguna zaizunetik haratago. Artistak etengabe ari dira errealitate-aukerak bilatzen eta lantzen, eta sarritan, aukera horiek ordura arte pentsatutakoaren mugak hausten dituzte. Aprobetxa itzazu lanok errealitatea ulertzeko eta horretan parte hartzeko beste modu batzuk probatzeko.

# JAIME CONDE-SALAZAR

Jaime Conde-Salazar Pérez Artearen Historian lizentziatua da (Madrilgo Unibertsitate Konplutentse) eta MA in Performance Studies (New York University). Dantza-kritikari gisa kolaboratu du hainbat argitalpenetan, eta orain bere kabuz idazten du [www.continuumlivearts.com](http://www.continuumlivearts.com) blogean. Sorkuntza-prozesuetan parte hartzen du dramaturgista lanak eginez, eta behar bezain lasai dagoen guztietan, haragizko esperientziaren bat eragiten duen edozein fenomenori buruz idazten du. Kitzikapena eta gogoberotasuna pizgarri bakar dituela, hainbat erakundetan jarduten du laguntzaile. Horien artean, aipatzekoak dira Arte Gela (Carlos III Unibertsitatea) eta Graner/Mercat de les Flors. Gainera, Pradillo Antzokiari lotutako artisten komunitateko kide harroa da.

**3- Zu zara falta dena.** Lan bat ez dago bukatuta zu hor egon arte. Modu askotan, lan egiteko orduan zu hartzen zaituzte kontuan artistek, zu bertan egotea. Zu iristean bakarrik egongo da lana burututa. Zure begirada, zure gorputza, zure hartzeko, ulertzeko eta irudikatzen gaitasuna, proposamenaren osagai dira. Goza ezazu eskaintzen dizuten hortaz, baina kontura zaitez lan horretan duzun erantzukizunaz. Ez duzu dena eginda jasoko: ikuskizunak zentzia izan dezan, artistaren lanaz gain, ezinbestekoa da ikusle gisa egingo duzun lana.

**4- Zure gorputzak parte hartzen du.** Badakizu ikustea erabaki duzun lanaren aurrean jarri eta parte hartzeko behar den guztia. Zure erreferentziak edo ezagutzak direnak direla, ez duzu ezer falta, ez duzu ezer gehiago jakin behar proposamen baten aurrean jartzeko. Burua eta begiak baino gehiago zara: azala, sudurra, organoak, oroimena, belarriak eta abar informazio baliotsu ugari jasotzeko kanalak dira. Erabili zure gorputz osoa aurrean gertatzen ari dena ulertzeko. Dantza-ikuskizun batean, kontzeptu filosofiko oso sofistikatu bat bezain adierazgarria izan daiteke usain bat edo tenperatura jakin bat.

**5- Ezagutza sortzen ari da.** Ezezagun zaizuna izango duzu aurrean. Sorkuntza artistikoa orokorrean eta bereziki dantza, ulertzeko gai garena zalantzan jartzeko modua dira. Batzuetan, ikerketaz hitz egitean, zientzia-laborategi bateko lanari buruz ari garela ematen du. Ez da dantzaren helburua Zientziaren antzera gauzak frogatu eta ziurtasun-sistema sortzea. Dantza zalantza esparruan dago, gure ezagutzeko gaitasunetatik haratago dagoena antzemateko gonbita da, jakin badakiguna baieztatzen modua baino gehiago. Aprobetxa ezazu egoera eta egizu solas askatasunez aurkezpenetan azaleratuko diren ideiekin, irudiekin edo sententzioekin, nahiz eta ezezagunak izan. Modu horretan, ezagutza sortuko duzu eta, batez ere, etorkizunera begiratuko duzu.

## 6- Erabili zure erreferentziak eta izan zaitez literala beldurrik gabe.

Eguneroko bizitzan erreferentzia ugari erabiltzen ditugu, kulturalak, sozialak eta baita artistikoak ere. Ezinbestean, gure kontzientzia etengabe ari da loturak, desplazamenduak, superposizioak eta bestelakoak egiten, eta are gehiago egitate artistiko baten partaide garelako kontzentratuta gaude. Batzuetan, antzokian gaudela, baratxuria erosi behar dugula gogoratzen dugu, esaterako. Horrelako pentsamenduek esperientzia artistikoa hausten dutela uste dugu eta horregatik saihesten saiatzen gara. Baina gauzek ez dute horrela funtzionatzen: zure sukaldean falta diren baratxuriak, zerikusirik ez dutela ematen badu ere, bizitzen ari zaren horren erantzun gisa bururatu zaizkizu. Utzi libre zure erreferentzien eta pentsamenduen jarioa eta onar itzazu epaitu gabe, gertatzen ari den horren aurreko adierazpen literal gisa.

**7- Hondartza.** Hondartzara joango zaren hurrengoan, hartu tartea paisaia begiratzeko. Begiratu argiaren portaera, airearen dentsitateak ikusten duzun horri eta usaintzen duzunari erantsen dizkion nabardurak, espazioa nola zabaltzen den, zure azalari itsatsitako dimentsio ukigarria izango balitz bezala; sentitu bertara eraman zaituen lagunaren gorputz hurbilak entzuten duzuna bitxiki nola modelatzen duen, etab. Dantzak, gainontzeko arteek antzera, munduan bizirik egotearen sententzioak islatzen ditu, eta horregatik, ipurdia hondar gainean jarrita duzun denbora-tartetxo horrek, itsaso- eta eguzki-bainuek, dantzari buruzko informazio gehiago emango dizute hari buruz esan edo idatz dezakegun guztiak baino, seguruenik. Horregatik, aprobetxa ezazu beti hondartzara joateko gonbita egiten dizun lagunaren eskuzabaltasuna: tarte oso atsegina igarotzeaz gain, dantza esaten diogun horren mugak zabalduko dituzu.



# SIETE CONSEJOS BÁSICOS

## PARA DISFRUTAR DE LO QUE ESTÁ PASANDO



Habitualmente, este espacio se dedica a textos generales que tratan cuestiones que tienen que ver con la danza y que sirven de marco a la edición correspondiente de Dantzan Bilaka. En esta ocasión, sin embargo, este texto está escrito específicamente para ti. En este preciso momento, estás leyendo esto: eso quiere decir que Dantzan Bilaka te interesa de alguna manera. Quizás tu amante favorito va a presentar un trabajo y no te lo quieres perder; puede que seas un técnico de cultura de alguna administración y sea tu deber hacer esto; puede que tu hija vaya a bailar; puede que no te interese nada la danza...pero el caso es que no sabes cómo pero este folleto ha llegado a tus manos y lo estás leyendo; puede que seas un comisario emergente que sabe que, hoy en día, estando las artes visuales en el estado en que están, en la danza se pueden encontrar cosas mucho más interesantes; puede simplemente que seas una aficionada apasionada y fiel y antes muerta que perderte Dantzan Bilaka... Las posibilidades son infinitas, el caso es que ahora estás aquí, leyendo este texto que, de una forma curiosa, está escrito para ti. Sabemos que, en este preciso momento, tus ojos están pasando justo por encima de esta línea y que esta curiosa relación que se establece entre tu cuerpo y el texto escrito, te pone en un estado especialmente propicio para hacer que fluya la información. Así que aprovechando tu interés por Dantzan Bilaka y nuestro deseo profundo de proporcionarte algún tipo de placer, te vamos a ofrecer siete consejos que pueden hacerte disfrutar de lo que se incluye en este programa. Dar consejos cuando nadie nos los ha pedido es un gesto muy feo a no ser que se trate de ese tipo de consejos que quizás no llegan en el mejor momento pero que, de alguna extraña manera, siempre son pertinentes, eso que llamamos "consejos de amiga".

**1- Después, vete al campo.** La danza, al igual que las demás artes, pertenece al mundo. Por mucho que se presente aislada y protegida en museos y teatros, solo tiene sentido en relación con lo de fuera. Por eso es importante no perder la noción de exterior. Inspírate en las palabras del sabio Ernst Jünger: por cada vez que vayas a ver danza, sal otras cien al campo, a la calle o a la playa. Así, podrás devolver al mundo de una forma muy simple parte de la experiencia que has recibido y, de paso, dejar que el aire libre ponga a punto tu cuerpo para la próxima vez que decidas meterte en un teatro.

**2- No te asustes si no parece danza.** Hace tiempo que la danza emprendió un viaje sin retorno que la ha liberado de los límites disciplinares establecidos. Esto ha hecho que, hoy en día, la danza pueda tener formas muy distintas: puede ser un vídeo, un espectáculo en vivo, una comida, un libro, una charla, una tarde en la playa... Date permiso para recibir las cosas tal y como suceden, más allá de tus expectativas y más allá de lo que conoces. Las artistas no paran de buscar y desarrollar posibilidades de realidad y, a menudo, esas posibilidades, fuerzan los límites de lo que habíamos imaginado hasta entonces. Aprovecha las obras para probar otras formas de entender y de participar en la realidad.

## JAIME CONDE-SALAZAR

Jaime Conde-Salazar Pérez es licenciado en Historia del Arte (Universidad Complutense de Madrid) y MA in Performance Studies (New York University). Ha colaborado como crítico de danza en diversas publicaciones y ahora escribe libremente en el blog [www.continuumlivearts.com](http://www.continuumlivearts.com). Suele acompañar procesos de creación haciendo labores de dramaturgista y siempre que tiene la calma suficiente, escribe sobre cualquier fenómeno que produzca algún tipo de experiencia carnal. Dejándose llevar únicamente por la excitación y el entusiasmo colabora regularmente con distintas organizaciones entre las que cabe destacar el Aula de las Artes (U. Carlos III) y Graner/Mercat de les Flors. Además es miembro orgulloso de la comunidad de artistas vinculada al Teatro Pradillo (Madrid).

**3- Tú eres lo que falta.** Una obra no está acabada hasta que no estás tú. De muchas maneras, las artistas trabajan contando contigo, con tu presencia. Solo cuando tú llegues, la obra estará completa. Tu mirada, tu cuerpo, tu capacidad de percibir, entender e imaginar son parte de la propuesta. Disfruta de lo que se te ofrece pero también hazte cargo de tu responsabilidad en la obra. No esperes a que te lo den todo hecho: que la obra tenga sentido depende no solo del trabajo de la artista sino también de la labor que tú hagas como espectadora.

**4- Tu cuerpo está en juego.** Sabes todo lo que tienes que saber para enfrentarte y participar en esa obra que has elegido ver. Sean cual sean tus referencias o conocimientos, no te falta nada, no necesitas saber más de lo que ya sabes para enfrentarte a una propuesta. No solo eres ojos e intelecto: tu piel, tu nariz, tus órganos, tu memoria, tus oídos, etc. son canales por los que llega mucha información valiosa. Utiliza todo tu cuerpo para entender lo que sucede ante ti. En una obra de danza, puede ser tan significativo un concepto filosófico muy sofisticado como un olor o una temperatura.

**5- Se está produciendo conocimiento.** Te vas a enfrentar a lo que desconoces. La creación artística en general y la danza en particular, existen como una forma de poner en cuestión lo que somos capaces de entender. En ocasiones se habla incluso de investigación de una manera parecida a como se haría al hablar de las labores que se desarrollan en un laboratorio científico. No es que la danza aspire a crear un sistema de certezas autorizadas por sí mismas como hace la Ciencia. La danza habita más bien en la incertidumbre, en este sentido, suele aparecer más como una invitación a asomarse a lo que se escapa a nuestras capacidades de conocer que como una afirmación de lo sabido. Aprovecha la situación para dialogar con libertad, con ideas, imágenes o sensaciones que emerjan a lo largo de las presentaciones aunque quizás no te resulten familiares. Así, estarás produciendo conocimiento y, sobre todo, estarás asomándote al futuro.

**6- Echa mano de tus referencias y no tengas miedo de ser literal.** En la vida cotidiana, manejamos infinidad de referencias culturales, sociales y también artísticas. Inevitablemente, nuestra consciencia no para de hacer asociaciones, desplazamientos y superposiciones y mucho más cuando estamos concentradas siendo parte de un hecho artístico. A veces, cuando estamos en el teatro, nos acordamos, por ejemplo, de que tenemos que comprar ajos. Parecería que este tipo de pensamientos interrumpen la experiencia artística y solemos tender a reprimirlos. Pero no es así como funcionan las cosas: esos ajos que faltan en tu cocina, aunque parezca que no tienen nada que ver, han llegado como respuesta a lo que estás viviendo. Deja que tus referencias y pensamientos fluyan libremente y acéptalos sin juicio, como una expresión literal de aquello que está sucediendo.

**7- La playa.** La próxima vez que vayas a la playa, tómate un tiempo para contemplar el paisaje. Observa cómo se comporta la luz; cómo la densidad del aire matiza lo que ves y lo que hueles; cómo el espacio se despliega como una dimensión táctil pegada a tu piel; cómo la proximidad del cuerpo del amigo que te ha llevado hasta ese lugar modula extrañamente lo que eres capaz de escuchar; etc... La danza, como las demás artes, recrean sensaciones de estar vivas en el mundo y por eso, este ratito con el culo en la arena, esos baños en el mar y ese sol, seguramente están dándote mucha más información sobre la danza que todo lo que somos capaces de decir o escribir sobre ella. Por eso, aprovecha siempre la generosidad de ese amigo que se ofrece a llevarte a la playa: no sólo pasarás un rato buenísimo sino que además estarás expandiendo los límites de eso que llamamos danza.



## “GAG”

GAG\* es una pregunta, es un intento de puesta de un problema en escena (problema: algo lanzado ahí delante -arrojar una dificultad a la escena- de la conferencia de Diego Agulló). Una invitación que tiene que ver con la atribución de significados a las cosas, en este caso a un cuerpo que se mueve. Un intento de generar un territorio de imposibilidad, de significar desde un exceso de interpretación. ¿Vaciamiento? ¿Potencia? ¿Aburrimiento? ¿Serán los significados una construcción o serán ellos inherentes a la materia que significan? ¿Qué se produce en la sobredosis de significados que interrumpen una lógica de relaciones de superposición entre el cuerpo y las palabras? ¿Qué cuerpo? GAG es una pregunta acerca de un cuerpo bailando en escena hoy.

GAG\* galdera bat da, agertokian problema bat adierazteko ahalegin bat da (problema: hor aurrerantz jaurtitako zerbait -zailtasun bat agertokira botatzea-, Diego Agullóren hitzalditik hartua). Gauzei -kasu honetan, mugitzen ari den gorputz bati-esanahiak esleitzearekin zerikusia duen gonbidapen bat. Ezintasun-lurralde bat sortzeko ahalegin bat da, interpretazio-gehiegieria batetik esanahiak adierazteko ahalegin bat. Hustea? Potentzia? Asperraldia? Esanahiak eraketa bat izango dira, ala materiari atxikita daude? Zer gertatzen da gorputzaren eta hitzen gainjartze-erlazioen logika bat eteten duten esanahien gaindosian? Zer gorputz? GAG gaur agertokian dantzan dagoen gorputz bati buruzko galdera bat da.

\*Del término que indica sobre todo algo que se mete en la boca para impedir la palabra, y después la improvisación del actor para subsanar un vacío de memoria o una imposibilidad de hablar.

\*Ahoan hitza galarazteko sartzen den zerbait adierazten duen terminotik, eta ondoren, aktorearen inprobisazioa, oroimen-hutsune bat edo hitz egiteko ezina konpontzeko.

**Idea, Zuzendaria / Idea, Dirección:** Luciana Chieregati

**Koreografia / Coreografía:** Luciana Chieregati

**Interpreteak / Intérpretes:** Luciana Chieregati, Camila Tellez

**Beste laguntzailea batzuk / Otros colaboradores:** Idoia Zabaleta, Rosa Casado, Rafael Lamata, Jaime Vallauré

**Teknikaria / Técnico:** Ibon Salvador

**Argazkia / Fotografía:** Camila Tellez

**Eskerrak / Agradecimientos:** Luisa Castro, Nacho De Antonio, Mike Brooks, Ixiar Rojas, Carolina Campos, Sofía Asencio Aznar, Germán de la Riva, Itsaso Iribarren, Vivian Chieregati Costa, Paulina Chamorro, Carlos Marquerie, Antón Ferreiro, Iara Solano, Eduardo Zallio, Igor de Quadra

**Kontaktua / Contacto:** coletivoqualquer@gmail.com

**Iraupena / Duración:** 17'

El proceso de creación de GAG empezó en 2014 dentro del contexto del Máster en Práctica Escénica y Cultura Visual de ARTE-A en Madrid. Su primera presentación fue en julio de 2014 en el Teatro Pradillo. Tras la presentación decidimos continuar investigando en la dirección de los materiales que generaba éste solo, tomando como eje el contacto con el público. Mediante el programa Dantzan Bilaka hemos realizado una residencia en esta dirección de finalización y afinamiento de la pieza escénica.

Durante el año de 2015 nos hemos dedicado a reordenar, substrair e intercambiar los materiales de éste solo, para así desplegar herramientas y dispositivos que posibilitasen otras organizaciones coreográficas del mismo y profundizasen en sus preguntas. Entendemos los procesos de creación, así como las piezas escénicas, como algo vivo, en constante movimiento y mudanza y en ese sentido nos era relevante continuar a manosear los materiales en otras formas comunicables. Organizarlos de otras maneras con el intuito de compartir la pregunta o problema que GAG pone en escena. Para la muestra de Dantzan Bilaka lo que enseñaremos es uno de esos dispositivos. La pieza en su totalidad podrá ser vista el día 22 de Octubre en La Fundación Bilbao dentro del Festival BAD 2015.

GAG sortzeko prozesua 2014an hasi zen, ARTE-Aren Jarduera Eszeniko eta Ikusizko Kulturari buruzko Masterra egiten ari zirela, Madrilén. 2014ko uztailean eman zuten lehen aldiz, Pradillo antzokian. Emanaldi horren ostean, proiektuak sortzen zituen materialak ikertzen jarraitzea erabaki genuen, publikoarekiko kontaktua ardatz hartuta. Dantzan Bilaka programaren bitartez, egonaldi bat egin dugu, pieza eszenikoa amaitze eta fintze aldera.

2015. urtean, proiektuko materialak berrantolatzen, kentzen eta aldatzen aritu gara, haren beste antolaketakoreografiko batzuk sortzeko eta haren galderetan sakontzeko tresnak bilatu nahian. Sortze-prozesuak eta pieza eszenikoak bizia duten, etengabe mugitzen eta aldatzen ari diren zerbait dira, gure ustez, eta ildo horretan, garrantzitsua iruditzen zitzaigun materialak beste komunikazio-modu batzuetan probatzea. Beste modu batean antolatzen genituen, GAG agertokian proposatzen duen galdera edo problema elkarbanatze aldera. Dantzan Bilakako emanaldian, muntaketa horietako bat erakutsiko dugu. Pieza, bere osotasunean, urriaren 22ean emango dugu Bilboko La Fundación aretoan, Festival BAD 2015 jaialdian.

## LUCIANA CHIEREGATI

El Colectivo Qualquer surge en 2008 en Lisboa a partir del encuentro de Luciana Chieregati (BR) e Ibon Salvador (País Vasco), ambos investigadores y coreógrafos. Durante estos años, su interés se centra en elaborar piezas de danza en cruzamiento e intersección con la filosofía contemporánea. Invierten energía en la elaboración de trabajos limítrofes que dialogan con el cotidiano, desplazando la disposición del espacio teatral y sobre todo investigan la creación de lenguajes desde la coreografía.

Esta preocupación por la organización de los espacios no sólo físicos sino también imaginarios y ficcionales; esta preocupación por cómo se inventa “lo real” es lo que hace que los creadores transiten por diferentes propuestas como la coordinación del espacio de Residencias Artísticas Seu Vicente en Lisboa y la participación en el Máster en Práctica Escénica y Cultura Visual en Madrid. Además de su participación en talleres, seminarios y encuentros con diferentes coreógrafos contemporáneos. Actualmente el colectivo se afina en Bilbao y entre otros proyectos está dedicado a la creación de la pieza “OVER” en colaboración con Esti Olabarri, Isaak Erdoiza e Idoia Zabaleta.

Colectivo Qualquer taldea 2008an sortu zen Lisboan, Luciana Chieregati (BR) eta Ibon Salvador (Euskadi) ikertzaile eta koreografoek topo egin zutenean. Urte hauetan, filosofia garaikidearekin gurutzatzen eta elkartzen diren dantza-piezak sortzea izan da haien interesa. Egunerokoarekin lotura estua duten lan mugakideak egiten ahalegintzen dira, antzerki-espazioaren antolaketa aldatuz, eta batik bat, koreografian oinarrituta hizkuntzak nola sortu ikertzen dute.

Espazioak -fisikoak zein alegiazkoak eta fikziozkoak- antolatzeko modua interesatzen zaie, “erreal” nola asmatzen den jakin nahi dute, eta hori dela eta, zenbait proposamenetan hartzen dute parte; adibidez, Lisboako Seu Vicente arte-egoitzen espazioa koordinatu, Madrilgo Jarduera Eszeniko eta Ikusizko Kulturari buruzko Masterra egiten, eta hainbat koreografo garaikideren tailer, mintegi eta topaguneetan hartu dute parte. Gaur egun, kolektiboa Bilbon dago, eta beste proiektu batzuen artean, OVER pieza ari da lantzen, Esti Olabarri, Isaak Erdoiza eta Idoia Zabaleta-ren laguntzarekin.



Isaac Erdoiza (Abadiño, 1975) realiza una formación independiente en danza contemporánea y estudios del cuerpo de la mano de artistas y pedagogos como Sara Paniagua, Carmelo Salazar, Peter Michael Dietz, Sofía Neuparth, Hisako Horikawa, Fran Van de Ven y Blandine Calais-Germain, entre otros. Entre los años 2007-2009 vive y estudia en Lisboa, realizando la formación artística F.I.A en el C.E.M (Centro Em Movimento). En 2010 realiza el aula de danza teórico-práctica de la UPV "Dantza Kodeak", impartido por Idoia Zabaleta, Igor de Quadra e Isabel de Naverán. Actualmente es intérprete en las piezas de danza "Privolva", "Privolva Landing" y "El Cielo Ahora" de la coreógrafa Olatz de Andrés, y en la pieza "OVER" del Coletivo Qualquer. Organiza junto con Maia Villot La Cosa en Casa, un encuentro en el cual se invita a artistas de distintas disciplinas a mostrar su trabajo en contextos domésticos. Proyecto iniciado en mayo de 2012.

Isaac Erdoiza (Abadiño, 1975) dantza garaikideari buruzko prestakuntza independentea egin du, eta gorputza aztertu du hainbat artista eta pedagogoekin. Sara Paniagua, Carmelo Salazar, Peter Michael Dietz, Sofía Neuparth, Hisako Horikawa, Fran Van de Ven eta Blandine Calais-Germain dira haietako batzuk. 2007tik 2009ra bitartean Lisboa bizi eta ikasi zuen; hain zuzen, FIA arte-prestakuntza egin zuen CEMen (Centro Em Movimento). 2010ean, Idoia Zabaleta, Igor de Quadra eta Isabel de Naveránek emandako "Dantza Kodeak" dantza-ikasgela teoriko-praktikoa egin zuen. Egun, Olatz de Andrés koreografoaren "Privolva", "Privolva Landing" eta "El Cielo Ahora" dantza-piezetan aritzen da dantzari, eta Qualquer kolektiboaren "OVER" piezatan. Maia Villotekin batera, La Cosa en Casa antolatu du, zenbait diziplinako artistei beren lana etxe-testuinguruetan erakusteko gonbita egiten dien topaketa bat. Proiektu hori 2012ko maiatzean hasi zen.

## "Buh!"

Camino por una calle cualquiera, escucho una frase que alguien dice, me sorprende, la memorizo sin esfuerzo y los siguientes metros voy repitiéndola en silencio. Escucho una segunda frase que se mezcla con la primera y escucho una más, y así van llegando nuevas frases, mensajes con los que juego a ordenar y desordenar en mi mente. De esta manera, esas palabras van ocupando un espacio nuevo en mi cuerpo hasta que desaparecen de nuevo, sin dejar rastro... o no.

Kale batean zehar nabil, norbaitek esaten duen esaldi bat entzuten dut, esaldi horrek harritu egiten nau, erraz ikasten dut buruz, eta hurrengo metroetan, nire baitarako esaten dut behin eta berriro. Beste esaldi bat entzuten dut, lehenarekin nahasten da, eta beste bat entzuten dut, eta esaldi berriak entzuten jarraitzen dut, nire buruan ordenatu eta desordenatzen ditudan mezuak. Horrela, hitz horiek leku bat hartzen dute nire gorputzean, arrastorik ere utzi gabe (edo ez) desagertzen diren arte.

**Ideia, Zuzendaria / Dirección, Idea:** Isaac Erdoiza

**Koreografia / Coreografía:** Isaac Erdoiza

**Interpreteak eta sorkuntza / Intérpretes y creación:** Maia Villot, Ibon Salvador, Eli Hernández, Isaac Erdoiza

**Argiztapena / Iluminación:** Xabier Urriaga

**Argazkia / Fotografía:** Gabo Punzo

**Beste laguntzaileak batzuk / Otros colaboradores:** Juan Carlos Garaizabal

**Eskerrak / Agradecimientos:** Luciana Chierigati, Marion Cruza, Gabo Punzo, Olatz de Andrés, Amaia Pascual, Punto de Fuga

**Kontaktua / Contacto:** iserdia@hotmail.com / 638824868

**Iraupena / Duración:** 20'-25'

## PROCESO CREATIVO

Este proyecto comienza con un material que he llamado "Frases robadas". Transito por lugares diversos como una acera abarrotada de gente, un banco en un parque, una entrada a un supermercado, un bar o el exterior de una iglesia. Lugares de tránsito de personas en los que me dedico a escuchar y registrar frases que selecciono y acumulo. Me interesa trabajar con estas frases y planteo un equipo de tres personas para generar el primer bloque importante de este proyecto: la voz, la palabra y un pequeño coro.

El segundo bloque propuesto es un cuerpo en movimiento, en relación estrecha con todo lo dicho por estas voces. Planteamos una serie de prácticas de relación de este equipo vocal con el cuerpo en movimiento. Buscamos un lugar de encuentro entre la palabra y el movimiento. Decimos las frases, las manoseamos. Hay palabras que se estiran, otras se repiten, surge un texto dentro de otro texto... y hay un cuerpo que recibe toda esta información. 25 días de trabajo, en proceso... diciendo palabras y moviendo cuerpos o diciendo cuerpos y moviendo palabras.

## SORTZE PROZESUA

Proiektu hau hasi zen nik "Esaldi lapurtuak" deitu diodan material batekin. Askotariko lekuetatik ibiltzen naiz: jendez gainezka dagoen espalo bat, parke bateko banku bat, supermerkatu bateko sarrera, taberna bat, eliza baten kanpoaldea... Jendea ibiltzen den lekuak dira, eta haietan, jendearen esaldiak entzun, aukeratu eta gordetzen ditut. Esaldi horiekin lan egitea interesatzen zait, eta hiru pertsonako talde bat proposatu nuen, proiektu honetako lehen bloke garrantzitsua sortzeko: ahotsa, hitza eta koru txiki bat.

